

HAURRENTZAKO MARRAZKI LEHIAKETA – GABONAK 2021

ARCCO AMARA MERKATARITZA-GUNEA.

1.- Antolaketa

ARCCO BERRI S.L. sozietateak, B-75048603 IFK duenak (helbidea: Donostia, Irun pasealekua 6, 20. 011), haurrentzako marrazki-lehiaketa antolatuko du gabonak direla eta.

n motivo de la navidad.

2.- Teknika eta gaia

Marrazkia egiteko teknika guztiz libre da, eta edozein material erabil daiteke (arkatzak, akuarela, argizariak, etab.), betiere DIN -A4 formatura egokitzen badira.

Gaia GABONAK dira, zure irudimena eta sormena garatu, eta kontaiguzu marrazki batekin.

3. Aukezpena eta parte-hartzea

Aurkezpen-formatua DIN – A4 tamainako papera izango da.

Marrazkiaren atzealdean datu hauek jarri behar dira: izen-abizenak, adina eta harremanetarako telefonoa.

4 eta 12 urte bitarteko haur guztiek parte hartu ahal izango dute.

Parte hartzeko, marrazkia eta datu pertsonalak (izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoa) aurkeztu behar dira, modu hauetako batean:

3.1. Utzi zure marrazkia merkataritza-gunean jarriko dugun kutxan, zure datuekin batera (izena, abizenak, adina eta telefonoa).

3.2. Bidali zure marrazkia ccarccoamara@gmail.com helbidera, zure datuak adieraziz (izen-abizenak, adina eta telefonoa).

Ezingo dute parte hartu Arcco merkataritza-gunearekin lan-harreman edo merkataritza-harreman bat duten pertsonak, ez merkatariek, ez eta jarduera merkataritza-zentroan garatzen duten langileek ere.

4. Epea eta erakusketa.

Parte hartzeko epea abenduaren 27tik urtarrilaren 9ra bitartekoa da, biak barne.

Marrazki guztiak merkataritza-guneko lehen solairuan jarriko dira ikusgai. Etorri ikustera!

5.- Balorazioa, saria eta jakinarazpena.

Lanak baloratzeko orduan, parte-hartzaileen adina, originaltasuna eta sormena, kolore-konposizioa eta estetika hartuko dira kontuan.

Saria 75 euroko erosketa-txartel bat izango da merkataritza-guneko edozein establezimendutan erabiltzeko eta pintura-set bat.

Urtarrilaren 10ean, aurkeztutako marrazkien balorazioa egingo da, eta egun horretan bertan jakinaraziko da haurrentzako marrazki-lehiaketaren irabazlea, merkataritza-guneko sare sozialen, webgunearen eta pertsonalki emandako telefonoaren bidez.

6.- Parte-hartzaile guztiek baimena ematen diote Arcco Berri SL-ri irudi-eskubideak lagatzeko, marrazkiak sare sozialetan, publizitate-pantailetan eta erakusketan bertan zabaltzeko, aitaren eguneko kanpainan marrazkiak komunikatu, zabaltzeko eta erakusteko helburu bakarrarekin. Saritutako marrazkia Merkataritza Zentroaren jabetzakoa izango da, eta argitaratzeko eskubidea gordeko da, betiere egilea aipatuz.

Gainera, enpresa horrek irabazleen izen-abizenak, bizilekua eta irudia erabil ditzake barneko eta kanpoko komunikabideetan (sare sozialak, publizitate-pantailak, etab.) sarituen irudia zabaltzeko.

Zozketa honetan parte hartzeak ez du irudi-eskubiderik sortzen.

Arcco Berri SL-ek beretzat gordetzen du sustapen-ekintzaren baldintzak edozein unetan aldatzeko eskubidea, baita bertan behera uzteko aukera ere, betiere arrazoi justifikatuak badaude.

7.- Arcco Berri SL da datuen arduraduna, eta datu-base batean gordeko ditu, indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen segurtasun eta konfidentzialtasun neurriekin, lehiaketa hau kudeatzeko. Parte-hartzaileek eskubidea izango dute datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko, datuen aurka egiteko, informazio hori ahazteko eta tratatzeko, eta datu-basean sartzeko baimena emango dute. Eskubide horiek erabili ahal izango dira helbide elektroniko honetara idatziz: direccion@arccoamara.com, eskabideari NANaren fotokopia erantsita. Jakinarazten dizugu datuak borondatez ematen direla eta baimen esplizitua parte-hartzailearekiko harremanaren oinarri juridiko arautzailea dela. Baimen hori lortzeko helburua lehiaketa bera egitea izango da, eta datuak zentroaren datu-baseetan gordeko dira, etorkizunean Arcco Berri SL-ek garatzen dituen ekitaldi, sustapen edo jarduera berrien berri emateko.

8.- Sustapen-ekintza honetan parte hartzeak esan nahi du www.arccoamara.com webgunean dauden oinarri hauek onartzen direla.